

## Txalo merezi

TXILLARDEGI



**U**DAKO bakantza garaia izaten zaio askori pifin bat pausatuta, eta arretzat hau edo hura irakurtzeko parada egokia.

Eta aste hauetan, Iruñean *urterako U.E.U. delakoa Larraona-eneko* geletan eta aretoetan gauzatzen den egunotan, aholkuxto bai eman nahi diet euskaltzaleei. Oso zehazki *Toponomia de la cuenca de Pamplona* liburu bikaina irakur dezatela.

J.M. Jimeno Jurio eta Patsi Salaberri Zarategi ikertzaileek ez dute inolako aurkezpen beharrik. Bai Artasonarrak eta bai Uxuetarrak, makina bai aldez frogatuta dute beren maisutza osoa.

Liburu berri honetan (Onomastica Vasconica, 12) Iruñe eskulduna hartu dute ikergaitzat. Eta, bestetan bezala, sekulako erudizioaz baliaturik, "beste" Iruñea erakusten digute: *gure hiriburua eskulduna*, hain zuzen.

Ezin zaio edonori liburua bere osan irakurtzea eskatu. Baina euskaltzale guztiei eska dakieke, eta eskatu behar zaie, 63/81 orrialdeak bederen irakurtzea. Nafarroako Kondaira eskuldun guztioi mingarri gertatzen bazaigu ere.

Deustuko jokabidez tristaturik dagoen Go-tzon Garateri irakaitz izango zaio "Colegio de la Anunciada-ko" berri hitzak ikastea (1580an hori!). Eta paraitzen dugun Arartekoaren zauriari egunero odola danolarik, jasangaitz agertuko zaio edonori Iruñean ere betiko eskema zapaltzale bera topatzea: «Las personas de mayor esfera» gaztelaniaz mintzo zela; aitzitik, «la gente común y ordinaria se comunicaba en vascuence» (71)...

Bihotzez, eta euskaltzale guztion izenean: mila esker aitz J. Jurio eta P. Salaberri lankide suhar eta jakintsuei.

## Demokrata eta abertzale

RAMON LABAIEIN



**O**RAIN zenbait egun, PSOEren bihurtzeki sortzen diren horietako arroxak batek zioenenez, Euskal Herrian, gaur, politikaren alorrean, aukera bi gelditzen zaizkigu eta gehiagorik ez: demokrata izatea edo ez izatea. Beste edozein opzio —abertzaleasunarenak adibidez— ez duela errealitatearik. Hila dago. Nietzsche-k esan bezala, Jaungoikoaz. Elhun urte igaro ordutzik, eta zurtasun bakarra izanik, Nietzsche hil zela eta Jaungoikoak hor segitzen duela, zentzu batean edo bestean. Gauza da horrelako esanera inpleak edo sinpliziaz beteak edo ergelkeria huts direnak edo gaitzakeria, erantzunak eman ordean galderak sortzen dituztela, zentzu gabekeriak zentzu apurren bai ba ote duten jakitearik. Demokratik ba, eta ez direnak.

Euskal Herriari dagokionez, PSOEkoek bezala pentsatzen dutenak eta besteak? Franco —kaltogarria zen gizon hura, ez ordea zoroa— demokrata "organikoak" asmatu zituen, bere nahian, jotake, loditzen zebiltzanak. Besteak, pentsatu beharko, demokrata "inorganikoak" izanik, politikak, ostikoka hantzat gora eta erdi hilak edukitzen zituen haiek. Edota gaur egunero guri ustelera bihurtuz, Sistemaren kontu lapurketa hutsan bizi direnak batetik, eta Sistema-pean izerdi lapatsan dabilzanak bestetik? Eta bikote hontan, norbaitek baldin badaki, zeintzuk diren demokrata eta zeintzuk ez, piztu dezala argia. Euskal Herrian ordea, eta PSOEko arroxalarien baimenarekin edo baimenik gabe, aidea dabilen enara bezain bizirik gabilzan abertzaleak, izan lezakegu gai hontaz gure iritzi berezia. Nola-baiteko demokrata, gaur egunekoak, Monarkia Parlamentario bai dela eta Espainian, gogo-gogo eta eten gabe. Eusko Nazioaren norfian, kultur eta eskubideak urratu nahian dabilzanak lirarteke. Eta demokrazia kutsurik gabekoa, helburu ber-ber horiek, Diktadura militar baten medio latzekin lotu nahi izan zituztenak. Eta abertzaleak, PSOEren bikotea hirukote eginez, Euskal Herriak zutik eutsi dezan saiatzen ari garenok. Aintzietan gorrotatzen inguratuko. Beti, oztipo. Eta manipulazioz beteak dugula gure demokraziazaren bidea eta beti aurrera goazela, itzaropenean.

## EL MUNDO

### Danborenea eta Barriouveau

Zahartuta sentitzen naiz inor konbentzitzen ahalegintzeko ikusi nahi ez duen zerbaitetaz, mutur aurrean izan arren. Baina begi-bistan dago Danboreneak azken muturrera eramane nahi izan duela Barriouveau hartzen ahalegintza zen defentsa ildoak, iragan abenduan Amedok eta Dominguezek Melchor Miralles egindako adierazpenekin berriro zabaldu zenean Gal-en saltsa.

Aukera argi zegoen: den-denak ukatu, edo bularralde harrotu. Barriouveau ez ze-



Gaur gure tertulian Don Jesulin de Ubrique analista politikoa txit argia dugu. Hori duk eta!

goen oso seguru Galen gaineko errebelazioei bere flota-zio-marratik behera eutsi ahaliko zien, eta aberriari egindako zerbitzuak argudiatu zituen aurreneko deklarazioe-

FORGES / EL PAIS

MARIANO FERRER

## UZENDARIARI

### Sektarismoaren harresia salatzen

Uztailaren 5ean eta 20an Jose Luis Otamendi Izarraizpe Irakaskuntza Kooperatibako arazoak idatzitako gutunei erantzuna:

Goiko ahalguztidunarekin solasaldi bat egin ondoren bere idatziak plazaratu dituela dirudi. Azken bolada honetan Izarraizpe Kooperatibako langile baten jokiera makurra eredutatz haririk sektarismo hutsaren erortzen da bidegabekeria bat justifikatuz. Idatziak hitz eta zita dotorez orrazten eta janzen saiatzen da, baina errealitate bestelakoa da.

Intsumisioa eta kontzientzia eragozpen hitzak aipatzen ditu. Soldaduzka egiten ari ote da andereño hori, akaso? Eta kontzientzia aipatzen kontzientzia gaitzoko dakartzan aje eta eragozpeni buruz ari ote? Gaur egun, hainbat gazte intsumisok, beren buruak horrela aginduta, helburu baten bila eskubide preziatuaren uko egiten dio. Askatasunari hain zuzen, zeren bere ideiak defenditzeagatik gartzelatuak dira.

Kasu honetan, ordea, andereño honek ez dio uko egin bere eskubideari, besteenari baizik. Bere gelako umeenari, alegia. Ikasleak bere andereñoarekin egoteko eskubidea zuten eta eskubide hori ukatu egin zuten.

Gu ere intsumisok gara. Gezurriari,

irainei, txantziari, mehatxuei, gorrotoari, jauntxokeriari... intsumisok gaitzazkie. Arrazoi hauek egatik, pribatua geratu den Elgoibarko ikastolan Kike eta Ibarzabal kaleratuak izan dira. Arrazoi berdinengatik, Otoren idatziak gaitzesten ditugu, zeren gezurra, sektarismoa eta iraina darie. Hain zuzen, berak onartzen ez duenaren paradigma bihurtzen dira.

Faxismoa eta koldarkeria ere aipatzen ditu gure lagunak. Faxismoa, jokaera demokratiko bat agintekeriakoa jokaera batez zapuztea litzateke. Zer gertatzen ari da ba hain justu gure kooperatiba honetan? Hasiera batean, erabakiak hartzerakoan, gutxiengo baten iritzia gehiengoari ezarri nahi zitzaion legea aitzakia haruz. Zer dio honetaz Jose Marti iraultzaile kubatarak? Besteak dira koldarrak eta hipokritak, ezta? Non dago autokritika?

Orain aldez, legea kontra dutenean, 30 urtetan landutako proiektuaren emaitza bikaina jasotzen ari garenean, hainbeste urtetan ikastolan lan egin ondoren, ez omen gara euskaltzaleak, ikastola publikoan Manolo Escobar eta parekoak irakatsiko omen ditugu. Tamaina honetako argudio, gezur eta iraminekin desberdintzen da ahopean darabilkizuen hezkuntza proiektu "desberdina"? Ziri politiko bidez Hezkuntza Sailetik baimenak lortzeko. Edozein bide justifikatuz, halakotxe izango da gure mapa eskolarra. Harrokeria barkatzeko diotzu... Bi urte

hautan bezalatsu, barkatzen ditugu harrokeria tanta horiek eta beste hainbat eta hainbat beharrezkotzat izan dituzuenak, beste arrazoirik ezean, irain, mehatxu eta txantzi mugagabek bezalako paper eta txasberrietan. Hala ere, zuek zarete gizatasunaren eredu?

Zeuk diotzen bezala, etorkizun beltza soma daiteke gisa honetako hezkuntza proiektu batekin, helburu bakartzat zaitaketa duelarik; orain etorkizun opaoro eta zinez, eritzi aniztasunean oinarritutako proiektua zaituz. Gutxi gara eta gainera ikusezina sortu nahi da.

Osorrik abesti batena hala dio: «Euskara da euskaldun egiten gaituena». Behin baino gehiagotan entzun izan dugu kalean, arazo honetan ezarri ditugun gogo eta indarrak elkarrekin lan egiteko, orain arte bezala, erabili izan bagenitu, euskarak eta ikastolak ez luketeia arazorik izango.

Euskara eta ikastola darabikigü hitzetik hortzera eta elkarri gezi gisa jaurlituen diogu elkarrengandik aldentu nahian. Zertarako? Ea denok, elkarrekin euskara eta benetako euskal eskolaren alde irrintzia botatzeko gai garen. Hori bai litzatekeela benetako gaitetasun irintzia. Euskaldunon irintzia.

IZARRAIZPE IRAKASKUNTZA KOOPERATIBAKO 115 IRAKASLE Azpeitia (Gipuzkoa)

## GAIA JARRITA



### Danborenea

Danboreneak redoble batez nazi doinua harturik harro esan du: PSOEk badu GALEN sorreran traturik eta horri esker badira batzuk hilda lurpean sarturik. Berak dionez ez omen dauka egindakoan damurik nahiz ez eskaini euskal proieoi beste irtenbide modurik.

INAKI MURUA

## Egunkaria

Batzorde Patekidea: 72564 E-1 / Ege Gordailua: SS 800/90 ISSN 1134-640X



OJD IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialerako Zuzendaria: JOAN MARI TORRE ALDAM

Kontseilari: Ordokartzat: INAKI UGUA

Zuzendaria: MARTXELU OTAMENDI

Gereotia: FERMÍN LAZKANO

Publizitate: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Egotitzegusia: Guadalupe etorbidea, 45 (E) - 20140 Andoain - 930 222 / Eretzadiako faxa: 930 255 / Publikazioa: faxa: 930 709

Arabara: San Antonio, 201 etorri - 41005 Gasteiz - 94335 027 / Faxa: 29 3872 / Publikazioa: 13 39 65

Nafarroara: Itate Monasterioa, 45 (E) - 48100 Leizor - 94311 1166 / Faxa: 17 80 7879 / Faxa: 17 80 777 / Publikazioa: 2 30 80

Bizkara: Zabalburu Enparantza, 2 (E) - 48900 Bilbo - 94340 446 / Faxa: 410 37 15 / Publikazioa: Orokaria: 200 18 55 / Publikazioa Lokala: 410 38 46

Lapurdi / Nafarroa Beherea: Zuberoa: Pamiola, 41 (E) - 48010 Pamiola - 94310 100 / Faxa: 94310 1578 / Faxa: 94310 1573